

[orri nagusia](#)

[web mapa](#)

Bilatu:

 

- [ARTEA](#)
- [BERTSOTAN](#)
- MUSIKA
- [ESZENA](#)
- [IKUS-ENTZUN](#)
- [LITERATURA](#)
- [BESTELAKOAK](#)

MUSIKA

## Ertz Bertze Musiken jaialdiak 10. edizio egingo du

2009-09-07 1 11:46:55



Hamargarren edizioa lau tokitan egingo da: Donostian, Tabakalera eta Artelekun; Beran, Kultur Etxean eta Kaxerna gaztetxean; Tolosan, Bonberenean; eta, azkenik, Hazparnen, Tattola gaztetxean.

Antolatzaileen esanetan, "ia konturatu gabe, hasiera batean abentura txiki, xume eta kuriositatez betetako bat izan zena, 10 urteko ume koxkor bat bihurtu da. Ustekabean hamar urte bete ditu *bertze musikak* deitzen dizkiegun horiei eskainitako ERTZ jaialdiak. Soinu, zarata, labirintu eta bertzelako zurrumbiloz beteriko hamar urte utzi (eta bildu) ditugu bidean, baina gauza guztien

gainetik nagusiki lagunez beteriko bidea izaten jarraitzen du jaialdi honek. Eta ez dago lagunaren ahotsik bezalako musika ederragorik".

Egitauri dagokionez, hilaren 9an Donostiako Tabakalera Charlemagne Palestine izango da, eta 10ean Francisco Lopez; 12an Berako Kultur Etxean, Toshimaru Nakamura, Ignaz Schick, Ander Lipus, Miren Gaztañaga, Xabi Strubell, iio Tzesne\_Paralux, Alex Mendizabal eta Gregg Kowalsky arituko dira, eta 13an herri bereko Kaxerna gaztetxean Adibera, Alex Mendizabal, Juan Jose Aranguren, Jakoba Errekondo, Mattin, Emma Hedditch, Anthony Iles, Howard Slater eta Mursego.

Hilaren 14an, berriz, Ertz jaialdiak Tolosako Bonbereneara joko du. Bertan, Improvisando gaztetxes izeneko ekimenaz gozatu ahal izango da; irailaren 14tik 17ra berriz, Donostiako Artelekun Noise & Capitalism izeneko liburuaren gaineko jardunaldiak izango dira; eta, azkenik, hilaren 19an Hazparneko Tattola gaztetxean Akauzazte Danok, Oier I.A., Trio Moraine eta Islaiak joko dute. Artista zerrenda luze honen inguruko xehetasun guztiak [Ertz](#) Bertze Musiken jaialdiaren webgunean biltzen dira.

## Nontzeberri



### [Bidali zure albistea](#)

T. T. T.

- [Hamahiru urte eta 226 kantu. Horiek dira ekimen honen zenbakiak. Kantutegi zabala osatu da Euskal Herrian Oskorri taldearen bultzadari esker. Orain, ziklo berriari ekin nahi diote. Gaur goizean egitasmoaren nondik norakoak azaldu dituzte Bilbon.](#)
- [Ama laukoteak \*Exposicion Permanente\* taldearen hirugarren lana aurkeztuko du Bilboko EL Balcon de la Lola aretoan hilaren 25ean. Donostiarrekin batera Kokoscha nafarrak izango dira. Kontzertua Unodos!!-ek antolatu du.](#)
- [Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak jazz estiloko diskoak argitaratu ohi ditu Errabalen bidez. Oraingoan Madrileko Camello de Troya jazz taldearen lan homonimoa plazaratu du.](#)
- [Gaur, irailak 11, ostirala, Iruñeako Baluarte auditorioan, eta 20:30ean, Urko, Gorka Knörr, Gontzal Mendibil, Txomin Artola, Niko Etxart eta Erramun Martikorena bilduko dira kantaldia eder hau burutzeko asmoz.](#)
- [Laugarren urtez, ostiralean, irailak 11, hasi eta urriaren 3ra bitartean, Flamenko jaialdia egingo da Bilbon. Ekimen honen bitartez, Bizkaiko hiriburura hurbildu nahi dituzte musika-genero honen erritmo bizi eta indartsuak.](#)
- [Emakumea eta trikitixa izango dira \*Inpernuko Poza\*, Trikitixaren VII. Jardunaldietako ardatz nagusia, hots, emakumeek trikitixarekin izan duten harremana. Jardunaldiok gaurtik aurrera abiatuko dira.](#)
- [Urretxuko rock boskoteak \*Nothing but a bad day\* izeneko lana plazaratuko du urriaren 5ean Donostiako GP Producciones zigiluaren eskutik. Grabazio berri hau binilo eta CD formatuetan argitaratuko da.](#)
- [Portugaleteko Santa Maria abesbatza, Kataluniako Grup Bergantí eta Kubako Caracol taldea ariko dira ostiralean hasiko den aurtengo ekitaldian.](#)
- [Bizkaiko Basauri, Erandio, Leioa eta Sestao herrietan Nazioarteko Kaleko Musikarien IX.](#)

[Topaketa gauzatuko da irailaren 18, 19 eta 20an. Hamabi talde jardungo dira, guztira berrehun musikari. Gaur goizean, herri horietako ordezkariak egin dute aurkezpena Bilbon.](#)

- [Moho eta Muletrain Donostiako Doka aretoan izango dira ostiralean, hilak 11, eta larunbatean berriz, Bilboko El Balcon de la Lolan. Moho hirukoteak sludge-metalak jorratzen du eta Muletrainek rock oinarri sendoa duen hardcorea.](#)

[Nor gara gu](#)

[Babesleak](#)

[Erabiltzaileak](#)

[azkenak](#)

[nontzeberri@nontzeberri.com](mailto:nontzeberri@nontzeberri.com)